BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

# ALDUNDIAK HARTU-EMONAK HASI DITU BEDERATZI ENPRESAGAZ, EKINTZAILETZAREN NAZINOARTEKO ZENTROA OKUPETAKO

- **Berak eta oposizinoak eskatuta Bizkaiko Batzar Nagusien aurrera etorri dan Ainara Basurko Ekonomiaren Sustapenerako diputatuak jakinarazo dauenez, hasera batean Bizkaia Torrearen proiektua kudeatzeko interesa erakutsi eben 4 enpresakaz eta hautagai moduan "identifikau doguzan" beste bostegaz jarri da BEAZ hartu-emonetan, hautagai onena aukeratzeko martxan jarri dan eta publizidadea daukan prozedura negoziauan.**

- **Beste batzorde batean, Imanol Pradales Azpiegitura eta Lurraldearen Garapeneko diputatuak Itsasadarraren azpiko tunelaren proiektuaren eta Gaztelugatxeko aparkalekuaren xehetasunak emon ditu; uda ostean erabagiko da azken hori gauzatu ala ez.**

(Bilbon, 2020ko zezeilaren 10ean). – Ekonomiaren Sustapenerako batzordearen eta Azpiegitura eta Lurralde Garapenerako batzordearen saio bi egin dira gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan. Horreetan, Ainara Basurko eta Imanol Pradales foru diputatuei zuzendutako hainbat agerraldi eskaera gauzatu dira.

Lehenengoan, Ainara Basurko Ekonomiaren Sustapenerako diputatuak, Aldundiak Bizkaia Torrean jarri gura dauen Ekintzailetzaren Nazinoarteko Zentroaren kudeaketea erabagiteko deitu dan lehiaketa edegiaren egoerea azaldu deutse Batzarretako taldeei. Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, bere saila, BEAZen bitartez, bederatzi enpresagaz jarri da hartu-emonetan, proiektua azaltzeko eta "publizidadea daukan prozedura edegi negoziaura" konbidetako. Azkenean prozedura horren bitartez erabagiko da nork kudeatuko dauen zentroa. Kontratazinorako mekanismoa aldatu ostean, soziedade publikoa hartu-emonetan jarri da hasera batean proiektua kudeatzeko interesa erakutsi eben 4 enpresakaz eta hautagai moduan "identifikau doguzan" beste bostegaz.

Diputatuak kontratazino prozesua zelan egingo dan zehaztu dau. Hasteko, beste bideragarritasun plan bat egingo da, aurrekoak hautagai posibleek atzera egitea eragin ebalako, aukeratutako formatu "barria", "inbertsino publikoak, inbertsino pribaduaren kaltetan, eukan babes maila handia" eta kontratuaren 15 urteko indarraldian "gitxiagotik gehiagora" joian ordainketa zatitua zirala eta, Basurkok azaldu dauenez, hautagaien euren eretxiak jasoz.

Baldintzen plegu barria argitaratu ostean, hautagaiek 30 eguneko epea eukiko dabe dokumentua aztertzeko eta parte hartuko daben ala ez erabagiteko, beste 25 egun behin behineko eskaintzak aurkezteko eta, negoziazinorako azkenengo fasearen ostean, enpresek azkenengo epealdia eukiko dabe behin betiko eskaintzea aurkezteko. Basurkok esan dauenez, prozedura hori “6 eta 8 hilebete artean” luzatu daiteke.

Ekintzailetzaren Nazinoarteko Zentroa, ekintzailetza tasea handitu eta Bizkaiko barrikuntza bultzatu gura dauen Biscay Startup Bay estrategiaren barruan dago. Zentroa estrategia horren “lau hanketako bat” izango litzateke. Joan dan irailaren 25ean, Aldundiak espazioa dinamizauko leuken kudeatzailea kontratetako lizitazino publikoa deitu eban BEAZen bitartez, baina lehiaketea hutsik geratu zan, operadore bakar bat be ez zalako aurkeztu.

Oposizinoak adierazo dauenez, “inprobisazinoaren” ondorioz gertatu zan hori. Elkarrekin Podemosek “denporea galdu izana” penagarria dala esan dau. Amaya Fernández Talde Bereziko (PP) bozeroaleak, “Hutsik dagon Babeleko Dorre” baten proiektura bideratu diran milioiak kritikau ditu, eta lehiaketara inor aurkeztu ez izana “plegu onegiak” egiteagaitik izan zala esan dau, ironia erabilita. “Etxea teilatutik hasi dozue, dirudienez, garrantzitsuena izen handiko kudeatzailea eukitea zalako”, gehitu dau Bea Ilardia EH Bildu taldeko bozeroaleak, eta hurrengo lehiaketarako “ezein aukerari aterik ez ixtea” eskatu dau.

Foru Gobernua eusten daben taldeak, euren aldetik, hautagaiaren kalidadean zentrau dira, bertako hautagaiei aterik itxi barik. Mikel Bagán jeltzalearen berbetan zentroak izango dituan kudeatzaileak “nazinoartean erreferentziazkoak diran eragileak” izatea eskatzea ez da “nazinoarteko eragileak” izatea eskatzea. Modu berean, Francisco Fernández PSE-EEko ordezkariak, “esperientzia daukien operadoreak” bilatzea defendidu dau.

Beste alde batetik, Ekonomiaren Sustapenerako diputatuak Enkarterrirako Pizgarri Planaren eta Ezkerralderako-Meatzalderako eta Enkarterrirako diseinau diran Plan Estrategikoen gaur egungo egoeraren barri emon dau. Lehenengoari jagokonez, Aldundiko arduradunak azaldu dauenez, azkenengo urte bietan 12,5 milioi euro inbertidu dira eskualdean, eta horren eragin zuzena euki dau inguruko enpresak sortzeko eta hobetzeko prozesuan eta eskualdearen konektibidadearen hobekuntzan. Inbertsino horri esker 62 lanpostu sortu dira, eta 42 ETEk enpresako eraldaketa proiektuetan parte hartu dabe, beste batzuen artean. Planari esker, eskualdetik kanpoko enpresa bi erakarri dira, eta Enkarterriren konektibidadea hobetu da, Bizkaibuseko lineatan jarduketak eginez, industrialde guztietan banda zabala jarriz eta BI 630 errepidea hobetuz.

**Gaztelugatxeko aparkalekua eta itsasadarraren azpiko tunela eregiteko proiektua**

Berak eskatuta, Imanol Pradales Azpiegitura eta Lurralde Garapenerako diputatuak, Sestao eta Artatzako biribilgunearen artean itsasadarraren azpitik joango dan eta Avanzadako eta Errontegiko zubiko trafikoa arintzeko balioko dauen tunel bikotxaren eraikuntza lanen inguruan hartu diran azkenengo erabagien barri emon dau ondoren egin dan batzordean.

Bideragarritasuneko azterlanaren barruan egin dan azterlan geoteknikoak tunelerako trazau egokiena definidu dau. 3 kilometro izango da luze, eta tunelak eregiteko material egokienak erabiliko ditu. Zati nagusia harkaitzean zulatuko da, baina 240 metro beste lur mota baten ganean egongo dira, eta horrek zundaketa gehiago egitea eskatuko dau, tarte txiki horren “ezaugarriak hobeto ezagutzeko”, azaldu dauenez.

Artatzako eta Ballontiko biribilguneak lotuko dituan tunelak 337 eta 403 milioi euro arteko inbertsinoa eskatuko dau, eraikuntza lanetan erabilten dan metodoaren arabera (tunelagailua, metodo austriarra edo kaxoi bidezkoa). Hori izango da 10,5 milioi euroren truke lizitau dan proiektuan definidu beharko dan alderdietako bat, eta baita lotune nagusi biak be. Esleitu ostean, eraikuntza proiektua 33 hilebetetan amaituko da. Gidariek 2027ra arte itxoin beharko dabe, seguruenez, itsasadarra azpitik kurutzetako.

Talde Mistoak (PP) Eduardo Andraderen berbetan aurreratu dauenez, azpiegiturea “eskasa” izango da ahalmen handiko errepideen trafikoaren arazoa konpontzeko. Elkarrekin Bizkaia taldeak, bere aldetik, azpiegitura horrek Aldundiaren kutxatan eragingo dauen zorra kritikau dau. Eta EH Bilduk konponbide “garestia eta ez oso jasangarria” dala azaldu dau. Raúl Méndez batzordekidearen eretxiz badagoz herritarren mobikortasuna hobetzeko alternatiba “merkeagoak eta eraginkorragoak”, “garraio publikoa indartzea, txartel bakarra sortzea edo itsasadarraren alde biak lotzeko oinezkoentzako igarobideak eregitea”, adibidez. Horrenbeste milioi eskatuko dituan azpiegiturea gauzatu aurretik errepideko beste jarduketa batzuk baloretea eskatu dau, Kukularrako gurutzagunean egiten ari diranak, adibidez.

Horren ostean, foru diputatuak Gaztelugatxeko aparkalekuaren ganean egin dau berba. Bisitarien iritsierea ordenetako Foru Aldundiak prestau dituan hainbat jarduketaren barruan dagola azaldu ostean –orain arte 500.000 euro inguru inbertidu dira–, Pradalesek esan dau uda ostean, eta haserako neurri zuzentzaileak aztertu ostean, bere sailak aparkalekua eregiko dan ala ez erabagiko dauela. “Neurriak baliagarriak izan dirala ikusten badogu, ez dogu aparkalekua egingo”, esan dau. Adierazo dauenez, egitekotan autobusek erabilteko izango litzateke.

NOTA DE PRENSA

# LA DIPUTACIÓN ESTABLECE CONTACTOS CON NUEVE EMPRESAS PARA OCUPAR EL CENTRO INTERNACIONAL DE EMPRENDIMIENTO

- **La diputada de Promoción Económica, Ainara Basurko, que ha comparecido en las Juntas Generales de Bizkaia a petición propia y de la oposición, ha informado de que BEAZ ha contactado con las 4 empresas que mostraron interés por gestionar inicialmente el proyecto de la Torre Bizkaia y con otras 5 que “hemos identificado” como candidatas de un procedimiento negociado con publicidad abierto para elegir al mejor candidato.**

- **En otra Comisión, el diputado de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Imanol Pradales, ha ofrecido detalles del proyecto de subfluvial de la Ría y del aparcamiento de Gaztelugatxe, cuya ejecución se decidirá después del verano.**

(Bilbao a 10 de febrero de 2020). – Hoy, se han celebrado en las Juntas Generales de Bizkaia sendas sesiones de la comisión de Promoción Económica, y de la comisión de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, en la que se han sustentado diversas comparecencias dirigidas a Ainara Basurko e Imanol Pradales.

En la primera, la diputada de Promoción Económica, Ainara Basurko, ha explicado a los grupos junteros la situación del concurso abierto para dirimir la gestión del Centro Internacional de Emprendimiento que la Diputación quiere ubicar en la Torre Bizkaia. La responsable foral ha señalado que su departamento, a través de BEAZ, ha contacto ya con nueve empresas para explicarles el proyecto e invitarlas al procedimiento abierto “negociado con publicidad”, que debe finalmente dirimir quién gestionará el centro. Después de cambiar el mecanismo de contratación, la sociedad pública ha contactado ya con las 4 empresas que mostraron ya interés en el proyecto, y con otras 5 que “hemos identificado” como candidatas.

La diputada ha desgranado cómo se realizará el proceso de contratación, el cual comenzará con la elaboración de un nuevo plan de viabilidad, ya que el anterior había provocado la renuncia al mismo de posibles aspirantes debido al “novedoso” formato elegido, al “alto grado de salvaguarda de la inversión pública en detrimento de la privada ” y al pago fraccionado “de menos a más” durante los 15 años de vigencia del contrato, según ha explicado Basurko, recogiendo la opinión de los propios candidatos.

Tras la publicación del nuevo pliego de condiciones, los aspirantes tendrán un plazo de 30 días para estudiar el documento y decidir sobre su participación, otros 25 días para presentar ofertas provisionales y, tras una última fase de negociación, las empresas quemarán un último plazo para presentar la oferta definitiva. Este procedimiento podría alargarse “entre 6 y 8 meses” ha asegurado Basurko.

El Centro Internacional de Emprendimiento se enmarca dentro de la estrategia Biscay Startup Bay que pretende incrementar la tasa de emprendimiento y contribuir a la innovación en Bizkaia. El Centro sería “una de las cuatro patas” de esta estrategia. El pasado 25 de septiembre, la Diputación lanzó a través de BEAZ una licitación pública para contratar un gestor que dinamizara el espacio pero el concurso quedó desierto al no presentarse al mismo ningún operador.

La oposición se ha referido a este hecho como un producto de la “improvisación”. Elkarrekin Podemos ha lamentado “la pérdida de tiempo”. La portavoz del grupo Mixto (PP), Amaya Fernández, ha criticado los millones comprometidos en el proyecto de reforma de una “Torre de Babel vacía” y ha ironizado con el hecho de que no se haya presentado nadie al concurso por elaborar unos pliegos “tan buenos”. “Han empezado la casa por el tejado, porque parece que lo importante era tener un gestor de renombre” ha añadido la portavoz del Grupo EH Bildu, Bea Ilardia, quien ha pedido que en el próximo concurso “no se cierre la puerta a ninguna opción”.

Los grupos que sustentan al Gobierno foral, por su parte, han puesto el foco en la calidad del candidato, sin cerrar la puerta a aspirantes locales. Para el jeltzale Mikel Bagán, pedir que los futuros gestores sean “agentes de referencia internacional no es lo mismo que sean agentes internacionales”. En la misma línea, el representante del PSE-EE, Francisco Fernández ha defendido que se busquen “operadores con experiencia”.

Por otro lado, la diputada de Promoción Económica ha presentado también en la comisión la situación actual del Plan de Estímulo para Enkarterri y los planes Estratégicos diseñados para Ezkerraldea-Meatzaldea y Enkarterri. Del primero, la responsable foral ha explicado que la Diputación ha invertido 12,5 millones de euros en la comarca en los dos últimos años, con un impacto directo en la creación y mejora de empresas del entorno, y en la mejora de la conectividad de la comarca. Esta inversión ha servido para crear 62 puestos de trabajo y para que 42 pymes hayan participado en proyectos de transformación empresarial, entre otras cuestiones. El plan ha servido también para atraer dos empresas de fuera de la comarca y ha mejorado la conectividad de Enkarterri con actuaciones en líneas de Bizkaibus, en dotar a todos los polígonos de banda ancha y en mejorar la carretera BI 630.

**Parking de Gaztelugatxe y proyecto constructivo del túnel bajo la ría**

A petición propia, el diputado de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Imanol Pradales, ha informado en una comisión posterior de las últimas decisiones adoptadas en torno a la construcción de un doble túnel viario bajo la ría entre Sestao y la rotonda de Artaza, que servirá para aliviar el tráfico en La Avanzada y el puente de Rontegi.

El estudio geotécnico realizado en el estudio de viabilidad ha definido el trazado más adecuado para el túnel, que tendrá una longitud de 3 kilómetros, aprovechará los materiales más convenientes para la construcción de túneles. La mayoría se horadará en roca pero habrá 240 metros de galerías que se asentarán en un terreno diferente que requerirá nuevos sondeos para "caracterizar mejor" este pequeño tramo, ha explicado.

El túnel, que unirá las rotondas de Artaza y Ballonti, requerirá de una inversión de entre 337 y 403 millones de euros, dependiendo del método constructivo (tuneladora, método austriaco o con cajones), uno de los aspectos que se tienen que definir en el proyecto que ha salido a licitación por un importe de 10,5 millones de euros, al igual que los dos enlaces principales. Una vez adjudicado, el proyecto constructivo estará finalizado en 33 meses. Los conductores tendrán que esperar previsiblemente hasta el 2027 para cruzar la ría por el subsuelo.

El grupo Mixto (PP), en palabras de Eduardo Andrade, ha vaticinado que la infraestructura será "escasa" para solucionar el problema de tráfico de las carreteras de alta capacidad. Por su parte, Elkarrekin Bizkaia ha lamentado el aumento de deuda que supondrá esta infraestructura para las arcas forales. Y EH Bildu ha explicado que es una solución "cara y poco sostenible". Para el apoderado Raúl Méndez, existen otras alternativas "más baratas y eficaces" para mejorar la movilidad de la ciudadanía como es "potenciar el transporte público, crear el billete único o construir pasarelas peatonales" para unir ambos márgenes de la ría. Ha pedido que antes de materializarse una infraestructura tan millonaria se valoren otras actuaciones viarias como las que se están produciendo en el nudo Kukularra.

El diputado foral se ha referido después al parking de Gaztelugatxe. Tras explicar que la infraestructura formaba parte de una serie de actuaciones que la Diputación ha ideado para ordenar la llegada de visitantes – hasta la fecha unos 500.000 euros invertidos- , Pradales ha afirmado que tras el verano y después de analizar las medidas correctoras iniciales, su departamento decidirá si construyen dicho estacionamiento. "No ejecutaremos ese aparcamiento si las medidas han servido", ha dicho. De hacerse, ha aclarado que el mismo sería para uso de autobuses.